

ALTZIBURUKO PIARRES

Haur denboran entzun ditugu hainbat mugalari beren beldur lasterketak, izerdi pleuak, eta, gau pasak kontatzen, baina gure aita Piarres Altziburukoak, nahiz, nork daki zonbat iheslarien pasatzale eta aterbetzale izan zen, ez zigun, bere balentrietaz deusik erraten....jakin dugun zerbeixka gure amaren gandik entzun dugu.

Sentimenezko gizona zen gure aita. Gau batez hegazkilari angles bat hego aldera pasatzerakoan, hunek erran omen zion ez zuela bere eskertzeko deusik emateko, bidean tturrindua izan zela beste pasatzaile baten gatik. Beti bezala, atzo berdin gaur, denetarik bada mundu huntan, nor berak ttanttoak bere alde bakarrik eskurtzeko... .Sentimenezko gizona ere zen hegazkilari anglesa. Bere ordularia kendu zuen bere eskumuturretik eta eman gure aitari, kiskun kaskun erranez, ordulari hori ibiliko zeno oroituko zela berak egin zion eskuzabalezko laguntzaz...

Geroztik ordulari hori, gure aitak atxikitzen zuen, erliki bat bezala, noiz nahi desmuntatzen zuen eta berriz muntatzen... Ez dakigu noiz bere tik takak gelditu ziren, (Aitak, bertze munduan dakike), guk, dakiguna da, oraino gure familian dugula, eta, batzuetan argira ateratzen dugula, sentitzeko, zerbait ezin dena aldatu gerlen haraindian: gizakiek, elgarrentzat, dugun: bihotz... mina...

Auxtin Zamora